

Aurtengo ikasturtean, Aretxabaletako Derrigorrezko Hezkuntzako ikasleekin, Eskola Agenda 21ean "BIZITZEKO HERRIA" gaia landu ondoren, jarraian doakizue ikasleek egindako azterketen ondorioak. Ondorio hauek maiatzaren 16ko udal plenoan aurkeztuko dituzte.

LEHEN HEZKUNTZA

LH 1. ZIKLOA eta 4. maila

Aztertutako Gaia: Jolas parkeak

Aretxabaletako hainbat jolas parke aztertu ondoren hona hemen ondorioak:

1. maila

KURTZEBARRIKO KANTXA.

- Zementuzko eserleketan egurra edo birziklatutako plastikoa ipini.
- Dauden lurreko jolasak, berriro margotu eta gehiago ipini.
- Garbitu.
- Bolatokiko zutabeak margotu. (Gorritz, urdinez, ...)
- Bolatokiko itokinak konpondu.

HERRIKO PLAZA .

- Garbiago mantendu.

IRALABERRI.

- Txintxaun eta joko egokituak ipini.
- Itzal gutxi dago.
- Iturria gertuago ipini.
- Lurreko jokoak margotu.
- Patinetan eta ibiltzeko zirkuituak margotu lurrean.
- Skatean ibiltzeko, zerbait ipini. (zarata asko egiten duenez, zaila izango da)

PAUSOKAKO PARKEA.

- Txintxauna ipini.
- Iturria ipini.
- Bideak egokitu gurgil aulkiak ibiltzeko moduan.

HIRUSTA/GERNIKA PLAZAko Parkea.

- LH eta BDHkoendako, txintxaun ez egokitua ipini.

KURTZEBARRI Aldamenekoa.

- Txakur kakekin zerbait egin.
- Iturri bat dago, gehiago ipini, luzea da eta.
- Karreteratik datorren zarata gutxitu.
- Zakarrontziak ipini.
- Danok ibiltzeko moduko txintxaunak ipini

SKATE PARKEA.

- Itzal gutxi dago.

- Jarlekuak ipini
- Iturrixa ipini.
- Skatekin ibiltzeko dauden plataformak konpondu eta garbitu.

SAN MIGUEL.

- Txintxaun eta joku egokitu. Batzuk oso altuak daude
- Itzalik ez dago.
- Eserlekuak dauden tokietan ez dago itzalik.
- Berdegunean, zuhaitz azpian, eserlekuak ipini.
- Denok ibiltzeko moduko txirrista ipini.

FRONTOIA/SASKIBALOIRAKO KANTXA DAUKAN PARKEA.

- Dauden jolasak egokitu.
- Itzalik ez dago.
- Hezia konpondu.
- Parkera joateko dauden eskailetan barandilak ipini.
- Eserlekuen atzean zuhaitzak landatu itzala emateko.

Aztertu ditugun jolastokietan, berdegune gutxi ikusi ditugu eta daudenetan, ezin gara ibili txakur kakak daudelako.

2. maila:

Eskolako jolastokia, ongi hornitua dago?

Parkeko aldea:

- Zakarrentziak nahikoak baina zahartuta eta zikinak.
- Aulkiak nahikoak, batzuk zaharkituak.
- Belarretan txakur kakak.

Pista/Kantxa:

- Kanastak oso altuak eta dekorazio aldetik gaizki.
- Bolatokia oso zikina.

Frontoian:

- Itokinak daude.
- Zorua irristakorra
- Argiztapen hutsuneak daude
- Hormak berriro margotu, frontisa

4. maila

- **Jolastokiko ingurumeneko balorazio edo kalitatezko fitxa bete.**
- Argiztapen hutsuneak daude.
- Aretxabaletako airea neurtzeko makinaren eskaera.

LH 2. ZIKLOA

Aztertutako gaia: Aretxabaleta denok bizitzeko da Herri egokia?

Bizitzeko behar diren baliabideakadostu eta Aretxabaletan bizi direnak ez badituzte zer egin behar duten aztertuta gero, hemen ondorioak.

3. maila

- Udalak dituen etxeak , beharra dutenendako egokitzea

LH 3. ZIKLOA

Aztertutago gaia: Aiton-amonek bizitzeko herri egokia da Aretxabaleta?

5. maila

Egin leku aiton-amonei, hemen eskaerak:

- Eraikuntza publikoetako atea automatikoak izan beharko lirateke. Gurpildun aulkiarekin edo umeen karruekin sartzeko arazoak egoten direlako.
- Herriko eskaileratan barandilak ipini, baita ranpetan ere, mugikortasuna errazteko.
- Basotxo inguruko lurra konpondu, terrazoak, solte daudelako.
- Zebrabideak mailak altuak dauzkate ranpak ipini, egokitu.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

1. maila

Aztertutago gaia: Generoa, presentzia berdina dute emakumeek eta gizonek Aretxabaletan eta deseroso sentitzen naizen tokiak (Ikus 1 eranskina)

Generoen gaia aztertu eta gero hona ondorioak:

Udolean

Udalbatzan emakumerik ez egotetik, presentzia areagotzen joan da. (Ikus eranskina)
Aretxabaletan 36 urtetan (1979-2015): 2 alkate emakume egon dira

Kaleetan

Aretxabaletan uste genuen emakume izenarekin kale bat zegoela Otalora (Concepcion de Otalora), baina badirudi Otalora familiaren omenez jarri zela.

Aretxabaletako eraikinen izenetan ez dago sexu bereizketa nabarmenik.

Jarraian aipatzen diren itemak kontuta edukita hona hemen Aretxabaletan gustura sentitzen ez diren tokiak.

Toki bateko segurtasun pertzepzioa

- **Inguruan gertatzen dena ikusten/entzuten dugu?**
- **Eta ingurukoak ikusten/entzuten gaituzte?**
- **Tokitik irteteko aukera bat baino gehiago dago?**
- **Laguntza eskatzeko aukerarik badago?**
- **Kolektibo batzuen presentziak, gure segurtasun pertzepzioa gutxitzen/gehitzen du?**

Zergatik?

ARETXABALETAN Deseroso sentitzen garen tokiak

- Bide gorrian gauean: argi gutxi dago.
- Frontoi atzealdea: Erabilpen desegokia. Itxita hobeto
- Ez dago gure adineko jendea lasai egoteko tokirik, Gazte lekua txiki gelditu da, ezta euria egiten duenean egoteko. Kiroldegiko eremu publikoa igandeetan zabaldu eta mahi jokoak ipini.
- Skate parkea kiroldegiko aurreko zelaian egitea.
- Kurtzeberri atzeko parkean, zahiez-bidea azpitik zeharkatzen duen tunela. Argiak ipini edo txuriz margotu. Atea ipini eta giltzak eman ortuen jabeei.
- Kanposantu ingurua, Skate parkea dagoen tokia: Argiak ipini.

- Sta Rita konbentuaren atzekaldea: Erabilera desegokia.: petardoak bota, zaborrak erre.
- Txarapeako bukatu gabeko etxeak: Bota eta parke bat egin.
- Txarapea atzeko eskailerak.
- Erreka ondotik kiroldegira doan bidea: Itxi edo bukatu.

Lanketa hau Eskoriatzako Ibarraundi Museoko langileen laguntzaz egin da.